

**2008KO ABENDUAREN 18AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA:

- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2008ko azaroaren 27an egindako ohizko eta aparteko aktak onartzeko proposamena.

2008ko azaroaren 27an egindako ohizko eta aparteko akten berri eman ondoren eta hitz egiteko txanda eman ondoren, PPko ordezkariak adierazi du 2008ko azaroaren 27an egindako ohizko aktarekiko ez duela onartuko bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartzen duelako.

EBko eta EAko ordezkariak aktak onartu egin dituzte.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “En relación al acta de la sesión ordinaria en la que participamos, en la página número 17 del acta en bilingüe que se nos ha enviado aparece la respuesta del Sr. Alcalde a la intervención que hice con respecto a los presupuestos. No sabemos si hay una omisión o un fallo en la grabación con respecto a lo que dije, esto es, el decía “podemos plantear también que el vehículo mixto, ...”. Nosotros oímos que el vehículo mixto, era un capricho y que si este año no se pudiera comprar lo podríamos comprar el año que viene. Dado que la palabra ha desaparecido, y no es una cosa que yo me la inventado, sino que comentamos en la mesa antes de intervenir, pedimos poder oír la grabación para poder saber donde está el fallo. De momento no aprobamos el acta.”

Idazkariak esan du bere ustetan hori ez dela grabazioan entzuten eta grabazioa entzun nahi duenaren eskura dagoela.

Alkatea jaunak (EAJ/PNV): “Yo creo que no dije esa palabra y para asegurarme también he contrastado la grabación.”

Horren ondorioz, 2008ko azaroaren 27ko ohizko batzarraldiko akta bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EA, EB)
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0
Etorri gabea: 3

Horren ondorioz, akta gehiengo absolutuarekin onartu da.

Jarraian 2008ko azaroaren 27ko aparteko bilerako aktaren berri eman da eta Fernando Boada jaunak ondorengo esan du:

“Nosotros no vamos a participar en la votación porque no asistimos a ese Pleno. No obstante, queremos hacer mención de la equidistancia que marca este Ayuntamiento con aquellos que son acusados de formar parte de una banda terrorista, de aquellos como Ignacio Uria que han sido asesinados

por la misma banda terrorista y que se ha saldado con el simple comunicado de una nota de prensa en nombre de los portavoces municipales, y que no merece ni siquiera por parte de este Ayuntamiento un punto en el orden del día para denunciar dicho asesinato, y las coacciones hacia el resto de los ciudadanos, que han mostrado su convicción e intención de seguir trabajando en y para este pueblo y en este caso con la construcción del Tren de Alta Velocidad. Mecanismo importantísimo para el desarrollo económico, incluso de la zona del Goierri, a la que pertenece nuestro municipio.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Te agradecería que presentaras una propuesta, como punto de urgencia para incluir aquí, que yo aceptaría de inmediato. Yo creo que con nuestra presencia en todos los momentos hemos manifestado, con nuestra adhesión a EUDEL, rechazo a ese atentado. Respecto de esa equidistancia, cada uno puede interpretar lo que quiere, pero nosotros lo que estamos diciendo es que hay dos partes. Existen un conflicto político y una cierta represión política y por otra parte está la actuación de ETA. Nosotros decimos claramente a ETA que sobra en la sociedad.”

Bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, EA, EB)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da 2008ko azaroaren 27ko aparteko bilerako akta.

PSE-EE/PSOE eta PPko ordezkariak ez dute bozketa honetan parte hartu 2008ko azaroaren 27ko aparteko batzarraldira etorri ez zirelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA.

20 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 20 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.

Onartzeko aurkeztu da, Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 20 Areako aldaketa puntuala.

Aldaketa kudeaketa baldintzei buruzkoa da eta zehazki honetan datza:

- Ekipamendua egin nahi den lekuan kalifikazio globala aldatu nahi da, A.A.20.1. Jarduera Isolatuaren aurreko mupagen berarekin. Hau da, 20. Eremuko Kirol Ekipamenduaren Sistema Orokorretik 2.922 m²-ko azalera hartzen da, Bloke Lineal-Isolatuko Egoitza Eremu (R-3) bilakatzeko.
- Jarduera Isolatuko eremuaren zonakatze xehakaturpeko Egoitza Eraikigarri bilakatzen da; gainazalak erabilera publikoko zortasuna edukiko du.
- Eraikuntza parametro berdinak mantenduta eta Kirol Ekipamendurako Sistemaren zonakatzea txikituta, eskualdeko eraikigarritasuna 0,61 m²(t)/m²-tik 0,67 m²(t)/m²-ra areagotzen da.
- Jarduera Isolatuko (A.A..20.) lurzoruaren etorkizuneko titulartasuna aldatu egiten da. Indarrean dauden Indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, txandakako garaje publikoak edo emakida erregimenekoak dira. Aldaketa honekin, salmenta askeko pribatuak izatea proposatzen da.

OINARRI JURIDIKOAK

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 artikulua eta honekin lotuta dauden 90 eta hurrengo artikulua eta ekainaren 3ko 105/2008 Dekretoaren Laugarren Xedapen Gehigarrian, izapidetzeari dagokionean.
- Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,1c) artikulua, organoaren eskuduntzari dagokionean.
- Erregimen Lokaleko oinarriak erregulatzen dituen Legearen 47,3i) artikulua, onartzeko quorumari dagokionean.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 20 Areako aldaketa puntualari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Erabakia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, dagokion iragarkia, lurralde historikoaren aldizkarian, Diario Vasco eta Berrian argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- EGITASMO BEREZIA. Dolarean lurpeko aparkalekua egiteko Egitasmo Bereziari behin betiko onespena ematea.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2008ko urriaren 22ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onspena eman zitzaion, Dolarean lurrazpiko aparkalekua eraikitzeke Egitasmo Bereziari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epean, 2008ko urriaren 24an, 25ean eta 31n, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Epe horretan, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Dolarean lurrazpiko aparkalekua eraikitzeke Egitasmo Bereziari behin betiko onspena ematea.

Bigarren. Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Hirugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

Une honetan M^a Pilar Vispo sartu da batzaraldira.

4.- KREDITU ALDAKETA. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean.

Alkate jaunak (EAJ) proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 10. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 10. Kreditu gehikuntzen bidez 88.100,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egungoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos
1.4100.211.321.10.01	Funtzionam. gastuak: E.P.A./ Gastos funciona: E.P.A.	5.520,00	8.100,00	13.620,00
1.5000.643.432.10.01	Azterketa eta proiektuak / Estudios y proyectos	120.000,00	19.000,00	139.000,00
1.1000.227.432.10.07	Hirigintza aholkularitza/ Asesoría urbanística	42.520,00	19.000,00	61.520,00
1.9000.211.443.10.01	Eraik. manten.: Hilerria/ Conserv. Edificios: Cementerio	10.000,00	3.000,00	13.000,00
1.9000.622.443.10.01	Eraikinak: Hilerria/ Edificios: Cementerio	169.544,00	27.000,00	196.544,00
1.8000.601.531.10.02	Azp. eta urb.: Baserri bideak/ Inf. Y urb.: Caminos caseríos	130.000,00	12.000,00	142.000,00

GUZTIRA / TOTAL	339.540,00	88.100,00	427.640,00
------------------------	------------	-----------	------------

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
1.9000.601.434.10.02	Azp. eta urb.: Haur parkeko zoruak/ Inf. y urb.: Suelo parques infantiles	19.000,00
1.9000.609.413.00.01	Instalazioak: Barrendaingo komunak/ Instalaciones: WC Barrendain	5.000,00
1.9000.601.511.10.02	Lazkaibarko oinezkoen pasab. / Paso peatones Lazkaibar	8.000,00
2.0000.870.000.00.01	Diruzaintzako gerak.: Kreditu gehikuntza/ Remanente tesorería: Créditos adicionales	56.100,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		88.100,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- EUSKARAREN ERABILERA EGITASMOA. IV plangintzaldiaren onspena.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), euskara batzordeko proposamenaren berri eman du:

“1995eko maiatzaren 17an, onartu zen Udal Administrazioiko lehen euskara-plana. Hasiera hartan, Kiroldegian jarri zen abian. Ondoren, Gizarte Ongizatean eta baita Udaltzaingoa ere.

II. plangintzaldian, 1998-2002, etenaldi baten ondoren, 2000. urtean Plana osotasunean hartu zen HPSren gidaritzapean, AEBEMET metodologia jarraituz. Batez ere, lan eginkizunen azterketa eta inplementazio lanean jarri zen indarra. Dokumentu asko berrikusi, zuzendu, egokitu eta aldatu ziren eta euskara hutsezko ereduak prestatu ziren.

2003an Beasaingo Udalak 2003-2005 urte bitarteko Euskara Biziberritzeko Plana onartu zuen, eta horretan jaso ziren III. Plangintzaldiko, 2003-2007, lehentasuna izango zuten ekintzak. Plangintzaldiak hiru helburu nagusi izan ditu:

- 1.- Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea. Horretarako erakundeak beharrezko diren neurriak hartuz joan da herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko eta harreman mota guztietan, idatzizkoetan zein ahozkoetan euskararen erabilera bermatzeko.
- 2.- Euskara, udaleko langileen arteko lan-hizkuntza izatea. Beharrezkoa da ahozko komunikazioa bultzatzea, konpromisoen sistemaren bitartez, nolabaiteko protagonismoa hartzen joan da, hala ere, oraindik ahozkoa sustatzeko estrategia berriak martxan jartzeko beharra ikusten da.
- 3.- Udalaren jarduera-eremuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea. Hizkuntzarekiko jokaera bateratu eta sistematikoa lortzeko hainbat neurri hartu dira, besteak beste, Baldintza Plegu, hitzarmen eta kanpoko kontratazioetan hizkuntza irizpideak jarri dira eta jarraipena egiten zaie, lanerako formazio-ikastaroetan euskarari lekua egiten zaio eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko moduan jarri dira.

IV. plangintzaldia 2008an hasi eta 2012ko abenduan amaituko da eta helburu nagusia hau: sail guztietan euskararen erabilera gehitu, euskara herritarrekiko harremanetan zerbitzu hizkuntza, beste administrazio batzuekiko harreman hizkuntza eta udal barruko lan hizkuntza izan dadin. Plangintzaldiaren jarraipena egiteko, 2009ko Udaleko Saitetako Barne Kudeaketan txertatu dira euskara areagotzeko ekintzak eta horien jarraipena batzorde horrek egingo du, bertan parte hartzen baitute, Alkateak eta udaleko teknikari guztiek. Halere, hor hartutako erabakien berri izango dute bai zinegotziek eta baita langileen ordezkariak ere.

Azaroaren 11ko Euskara Batzordean aurkeztu zen IV. Plangintzaldiko dokumentua

Proposamena

Euskara Batzordeak proposatzen du Euskara Erabilera Planaren IV. Plangintzaldia Udal Batzak onartzea.”

Plangintza honetan datza:

PLANAK ERAGINDAKO LANGILEAK

ATALAK	Hizkuntza Eskakizuna dutenak	Hizkuntza Eskakizuna ez dutenak
Alkatetza	1	
Antolakuntza eta informatika	2	
Pertsonala	2	1
Hirigintza	2	1
Zerbitzuak	5	3
Ongizatea	6	
Idazkaritza	1	
Kultura	3	
Harrera bulegoa	3	
Ekonomia	4	1
Biblioteka	3	
Euskara	2	
Udaltzaingoa	13	2

Udal Erakundeak	Hizkuntza eskakizuna dutenak	Hizkuntza eskakizuna ez dutenak
Kiroldegia	4	
Musika Eskola	16	3
Udal Euskaltegia	5	

HELBURU NAGUSIA

Sail guztietan euskararen erabilera gehitu, euskara herritarrekiko harremanetan zerbitzu hizkuntza, beste administrazio batzuekiko harreman hizkuntza eta udal barruko lan hizkuntza izan dadin.

1. **Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu**
2. **Idatzizko harremanetan euskararen erabilera gehitu**
3. **Ahozko harremanetan euskararen erabilera gehitu**

1. Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu. Beasaingo udalean, irudi korporatiboan eragiten duten hainbat aspektu, dagoeneko elebrietan daude, hala nola, web gunea, udal aldizkaria eta abar eta euskara hutsean errotulazioa, eta papeleria eta abar. Hala ere alor honetan bada, oraindik hainbat lan. Adierazi behar da, irudi korporatiboa Udal osoari dagokion gaia dela eta planteatuko diren helburuak udal osoari dagozkionak direla. Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzeko, hurrengo helburu zehatzak definitzen dira.:

- a.- **Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak betetzen direla ziurtatu**
- b.- **kontratazioetan hizkuntza irizpideei buruzko akordioa betetzen dela bermatu**
- c.- **Euskarazko baliabide informatikoetan euskararen erabilera bultzatu**
- d.- **web orrian euskararen presentzia eta kalitatea ziurtatu**

2. Idatzizko harremanetan euskararen erabilera handitu. Beasaingo Udalean idatzizko harremanetan egiten den euskararen erabilera nahiko altua da, kanpora helarazten diren dokumentu ia guztietan bermatzen da euskararen erabilera. Aukera dagoen kasuetan, **euskara**

hutsezko harremanak ere ematen dira. Aurrera begira, baliteke azken bide honetatik gehiago aurreratzeko aukera izatea, hau da **itzulpenaren beharra gutxitzea**, eta plan honen baitan aztertuko dira aukera horiek.

Idatzizko harremanetan euskararen erabilera bermatzen bada ere, horrek ez du esan nahi sortze hizkuntza beti euskara denik. Beasaingo udaleko langileek duten euskararen ezagutza maila kontuan izanik, helburu bat izan daiteke, pixkanaka-pixkanaka euskarazko sortze lana gehitzea. **Euskaraz eta kalitatez sortzea** da helburua. Horretarako noski, beharrezkoak izango dira hainbat laguntza eta baliabide.

Idatzizko harremanetan euskararen erabilera handitzeko hurrengo helburu zehatza definitu da.

a.- Idatzizko harremanetan euskaraz lan egiteko langileen gaitasuna lortzea

3. Ahozko harremanetan euskararen erabilera handitu.Idatzizko harremanetan euskararen erabilerak presentzia altua badu ere, ahozkoan, oraindik badira gabeziak. Bai harreman formaletan eta baita informaletan ere. Lankideen arteko harremanetan, gaztelaniak presentzia handia du.

Onorioz, barne eta kanpo harremanetan, bietan dira hobetzeko arloak.

Ahozko harremanetan euskararen erabilera handitzeko hurrengo helburu zehatzak definitu dira:

a.- ahozko harremanetan euskararen erabilera gehitzea

b.- ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitzea

HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

Helburu orokorrak	Helburu zehatzak	adierazleak
1. Irudi korporatiboak euskararen erabilera gehitu	1.1. Idazki elebiduentan euskara nabarmentzeko irzpidetak betetzen direla ziurtatu	Euskara behar bezala nabarmendu gabe bidaltzen diren idazkien portzentajea
	1.2. euskarazko baliabide informatikoetan euskararen erabilera gehitu	Euskaraz erabilgarri dauden aplikazioak (%) Euskarazko aplikazioetan erabiltzaileak (%)
	1.3. kontratazioetan hizkuntza irizpideei buruzko akordioa betetzen dela bermatu	Irizpideen txertatze maila (%) Esleipenean irizpideak kontuan izan dira (%) Irizpideen betetze maila (%)
	1.4. Web orrian euskararen presentzia eta kalitatea ziurtatu	Web orriko edukien kalitate maila (%)
2. Idatzizko harremanetan euskararen erabilera gehitu	2.1. Idatzizko harremanetan euskaraz lan egiteko langileen gaitasuna lortzea	Itzultzaileak itzul edo zuzen ditzan bidaltzen diren dokumentuen portzentajea (sailkatuta zer eta zenbat)
3. Ahozko harremanetan euskararen erabilera gehitu	3.1. Ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera ziurtatu	Euskarazko harrera telefonoan (%) Euskarazko harrera aurrez aurre (%)
	3.2. ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu	Kudeaketa planaren arabera, egin beharreko bileretatik gaztelaniaz egiten diren bileren portzentajea

ESTRATEGIAK

1 LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA LANDU, EUSKARAZ SORTZEKO DUTEN ZAILTASUNARI AURRE EGITEKO, EUSKARAREN BIRZIKLATZEA, KALITATEA LANDU.

- *Langile bakoitzaren beharrei egokitutako prestakuntza eskaini: eguneroko zereginei egokitutakoa, norbanakoari egokitutako prestakuntza, etab.*
- *Langileen eguneroko zeregin eta dokumentuei egokitutako material didaktikoa sortu eta hedatu.*

2. BALIABIDEAK JARRI LANGILEEN ESKU. EUSKARAZ LAN EGIN AHAL IZATEKO, ERRAZTASUNAK ESKAINI

- *Baliabide informatikoen euskarazko erabilera ahalbideratu eta sustatu.*
- *Web orriko edukien kalitatea bermatzeko oinarriak prestatu.*
- *Eguneroko lanean sor daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztu.*
- *Lanpostu bakoitzerako baherrezkoak diren zerrenda terminologikoak prestatu.*
- *Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu: idazkiak euskaratu, idazki traketsak moldatu, txantiloiak prestatu.*

3. ERABILERARAKO BARNE IRIZPIDEAK ARGITU. BARNE ZEIN KANPO HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITZERA BIDERATUTA.

- *Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak definitu, zabaldu eta betetzen direla bermatu.*
- *Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu*
- *Herritarrekin, beste administrazioekin eta udaleko lankideekin lehen harremana euskaraz egin dadin bultzatu.*
- *Jendearekin harremana ekarriko duten kontratazioetan euskarazko giza baliabideen eta tresnen presentzia ziurtatu.*

4.EUSKARA ERABILTZEAREN ALDEKO MOTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA LANDU, BATEZ ERE, ARLO INFORMALEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZERA BEGIRA.

- *Arduradunak planaren garrantziaz motibatu eta ezarpenean inplikatu*
- *Euskaraz lan egiten dutenenganako errekonozimendua landu*
- *Euskara langileen arteko harreman sare informalean integratu*

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN KOMUNIKAZIO PLANA GAUZATU

- *Erabilera planaren helburuak eta asmoak eragindako langile eta agintarien artean zabaldu*
- *Planaren berri eman udalean sartzen diren langile eta arduradun politiko berriei*

EKINTZA PLANA 2008-2012

1. LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA LANDU, EUSKARAZ SORTZEKO DUTEN ZAILTASUNARI AURRE EGITEKO, EUSKARAREN BIRZIKLATZEA, KALITATEA LANDU

1.1. Langile bakoitzaren beharrei egokitutako prestakuntza eskaini	1.1.1 Norberaren beharretara egokitutako trebakuntza antolatu, horren beharra duten langileentzat (gai berezi batean, ezagutza berezi batean, etab.)
	1.1.2. Xede berezietarako ikastaroak antolatu
	1.1.3. ikastaroetarako baimenak emateko irizpideak berrikusi
1.2. Langileen eguneroko zeregin eta dokumentuei egokitutako materialak didaktikoa sortu eta hedatu	1.2.1. Langileen eguneroko zeregin eta dokumentuetan oinarritutako material didaktikoa sortu
	1.2.2 sortutako materiala hizkuntza gaitasuna gehitzeko erabili (1.1. estrategiko ekintzak lantzeko)

2. BALIABIDEAK JARRI LANGILEEN ESKU. EUSKARAZ LAN EGN AHAL IZATEKO ERRAZTASUNAK ESKAINI.

2.1. Baliabide informatikoen euskarazko erabilera ahalbideratu eta sustatu	2.1.1 Euskaraz ez dauden eta jartzeko aukera ematen duten programa eta aplikazio informatikoak identifikatu
	2.1.2 Identifikatutako programa eta aplikazioak euskaraz jartzeko plan bat
	2.1.3 Euskarazko euskarri informatikoak jarri atal guztietako langileen ordenagailu guztietan
	2.1.4 euskaraz ere erabilgarri dauden
2.2. Web orriko edukien kalitatea bermatzeko oinarriak prestatu	2.2.1 Web orrian zintzilikatzen diren dokumentuen kalitatea neurtzeko protokolo bat definitu (irizpide batzuk zahaztu) eta 3 hilabetez behin protokolo horren betetze maila neurtu
	2.2.2. Irizpide horiek langile guztien artean ezagutarazi.
2.3. Eguneroko lanean sor daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztu	2.3.1 Intraneteko euskara baliabideak langile guztiei ezagutarazi eta haren erabilera indartu
	2.3.2 Erantzundako galderak erabiltzaile guztiek intranetean ikusteko moduan jarri
	2.3.3 Udal Euskaltegian trebatzaile figura sortzeko aukera aztertu. Bertako baliabideez baliatu zerbitzu hau

	eskaintzeko
2.4. Lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren zerranda terminologikoak prestatu	2.4.1 Jakintza-esparru bateko beharrei antzeman, terminoen zerranda osatu eta bi hizkuntza ofizialetan jarri eta eragindako langileen artean banatu
	2.4.2 Zerranda terminologiko horiek eguneratuak mantentzeko protokolo bat definitu
	2.4.3 zerrandak intraneten jarri kontsultatu ahal izateko
2.5. Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu: idatziak euskaratu, idazki traketsak moldatu, txantiloak prestatu,..	2.5.1 Atal bakoitzeko lan jardun nagusiak hautatu eta euskarazko gabeziak antzeman
	2.5.2 Gabezi horiek betetzeko kasu-kasuko neurriak hartu (Itzulpenak, testuen egokitzapena, ikastaroak,...)

3. ERABILERARAKO BARNE IRIZPIDEAK ARGITU. BARNE ZEIN KANPO HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITZERA BIDERATUTA

3.1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak definitu, zabaldu eta betetzen direla bermatu	3.1.1 Hizkuntza ofizialak erakundeak erabiltzeko irizpide argiak zehaztu, horretarako orain arte Udalak definituta dituen irizpideetan oinarritu (zer euskaraz, zer gazteleraz, zer elebietan,...)
	3.1.2 Definitutako irizpideak jakitera eman langile guztien artean eta betetzeko neurriak hartu
	3.1.3 Hizkuntza irizpideak betetzen direla jakiteko, aldian-aldian laginak aztertu
3.2. Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu	3.2.1 Udalak idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko ezarritako irizpideak langile guztien artean zabaldu eta beharrezkoa balitz, zehaztu eta egokitu
	3.2.2. Irizpide horietan oinarrituta, Udaleko idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak betetzeko neurriak hartu
	3.2.3 Udalaren irizpideak betetzen ez dituzten idazki elebidunetan dagozkion egokitzapenak egin
3.3. Herritarrekin , beste administrazioekin eta Udaleko lankideekin lehen harremana euskara egin dadin bultzatu	3.3.1 Telefono eta aurrez aurreko harrera euskarazkoa izan dadin protokolo bat zehaztu
	3.3.2 Herritarrari eta beste administrazioei aukera eman komunikazioak euskara hutsean egiteko
3.4 Jendearekin harremana ekarriko duten kontratazioetan euskarazko giza baliabideen eta tresnen presentzia ziurtatu	3.4.1 Kontratazioetako hizkuntza irizpideen gaineko Akordioa Udalean ezagutzera eman eta eskurgarri jarri.
	3.4.2 Kontratazioetan hizkuntza irizpideak

	<i>txertatzeko protokoloa definitu, horretarako udaleko euskara zerbitzuak emandako irizpideen arabera</i>
	<i>3.4.3 Esleitzerakoan irizpideak kontuan hartu direla bermatu</i>

4. EUSKARA ERABILTZEAREN ALDEKO MOTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA LANDU, BATEZ ERE, ARLO INFORMALEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZERA BEGIRA.

<i>4.1 Arduradunak planaren garrantziaz motibatu, eta ezarpenean inplikatu</i>	<i>4.1.1 Saileko agintariek euskararen aldeko konpromisoa har dezaten lan egin eta konpromisoak ezagutzera eman</i>
	<i>4.1.2 Arduradun guztiek Jarraipen/kudeaketa Batzordean parte har dezaten ziurtatu</i>
	<i>4.1.3 Erabilera planaren berri eman arduradun guztiei horretarako planifikatutako epeetan</i>
<i>4.2 Euskaraz lan egiten dutenenganako errekonozimendua landu</i>	<i>4.2.1 Euskaraz lan egiten duten jarduera arautzeko protokolo bat prestatu, besteak beste, honako aspektuak zehaztuz: -Itzulpen politika (euskaraz lan egiten dutenek itzuli edo ez, zer itzuli,...) -euskararen erabileraren arabera, zenbait lehentasunen ezarpena:hizkuntza prestakuntzan, etengabeko prestakuntzan, etab.</i>
	<i>4.2.2 Protokoloa ezagutzera eman erakunde osoan</i>
<i>4.3 Euskara langileen arteko harreman sare informalean integratu</i>	<i>4.3.1 Harreman informaletara zuzendutako erabilera-taldeak sortu eta dinamizatu, saileko bideratzaile baten gidaritzapean (erabilera taldeen bloga)</i>
	<i>4.3.2 Adituekin ekimen ezberdinak antolatu (hitzaldi, aurkezpenak, etab) arlo hau nola landu aztertzeko</i>
	<i>4.3.3 Beste esperientzia batzuk aztertu baliagarriak izan daitezkeen ideiak jasotzeko (Cafeko talde naturalak, benchmarking)</i>

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN KOMUNIKAZIO PLANA GAUZATU

<i>5.1 Erabilera planaren helburuak eta asmoak eragindako langile eta agintarien artean zabaltu</i>	<i>5.1.1 Udaleko erabilera-planaren nondik norakoak biltzen dituen dokumentua prestatu, planak eragindako langile eta agintariei zuzenduta</i>
	<i>5.1.2 Planak eragindako langileei eta agintari politikoei dokumentua banan-</i>

	banan bidali
	5.1.3 Aurrez aurreko aurkezpenak egin
	5.1.4 Planaren inguruko informazio guztia Udalaren intranetean txertatu eta jakitera eman
5.2 Planaren berri eman Udalean sartzen diren langile eta arduradun politiko berriei	5.2.1 Pertsona berriak erabilera planean nola barneratu diren zehazten duen protokoloa definitu eta erakundearen harrera planean txertatu
	5.2.2 Informazio dokumentu bat prestatu euskararen normalkuntzako planaren berri emateko

PLANAREN KUDEAKETA

IV. plangintzaldiaren kudeaketa Barne Kudeaketa Batzordeak egingo du, bertan parte hartzen baitute, Alkateak eta udaleko teknikari guztiek. Halere, hor hartutako erabakien berri izango dute bai zinegotziek eta baita langileen ordezkariak ere.

Bestalde, plangintzaldi honetan hartuko diren euskararen erabilerari dagozkion erabaki guztiak, dagokion udal organo exekutiboek onartuko dituzte.

PLANAREN JARRAIPENA

Urtero egingo da erabilera planaren kudeaketa txostena. Dokumentu horretan jarrita bezala egingo dira neurketak. Horretaz gain, sei hilabetero sailtako erabilera planak neurtuko dira.

Urteko balorazio txostena idatziko da urte bukaeran. Horren ondorioz, hurrengo kudeaketa planerako beharrezko egokitzapenak egingo dira

HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

1990eko apirilaren 5eko Udal Ordenantzak, “ Euskararen erabilpena sustatu eta normaltzeko Udal Ordenantzak”, arautu zituen lehenengo aldiz, Beasaingo Udalak hizkuntza ofizialen erabilera. Araubide orokorra da prozesuaren helmuga markatzen duena. Tresna horrek Beasaingo Udaleko sail eta Udal Erakundeentzako hizkuntza-irizpideak finkatu zituen. Irizpide orokor horiek zehazteko, ordea, erabilera planak gauzatu dira, azkena, dokumentu honetan jasotzen den IV. Plangintzaldia. Azken hau ere, araubide horretako irizpideak gauzaten eta gorpuzten joango da, izan ere, behar beharrezkoa da langile eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, noiz eta zer egin behar duen euskaraz edo elebjetan.

Udal ordenantzen dokumentu horretatik kanpo onartu beharreko hizkuntza irizpideak dagokion organo exekutiboan tratatu eta erabakiko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Malu Valles andreak (EAJ), gizarte-ongizateko batzordearen proposamenaren berri eman du, hain zuzen ere, ondorengo oinarriak onartzea dirulaguntzak emateko:

a- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzak proiektuak.

“1.- Xedea.

Oinarri hauen xedea, herrialderik txiroenetako biztanleen gizarte- eta ekonomia-egoera garatu eta hobetzeko jarduerak burutzea helburu nagusitzat duten irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak emateko arauak jartzea da, hala nola, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE) edo erlijio-kongregazioei, hain zuzen ere beren bitartez elkarlan-programak antolatu eta garatzeko.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundeak izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badu eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Hautaketarako irizpideak.

Balorazioan kontuan hartuko dira:

Erakundea:

- a) Beasaindarren partaidetza eta elkarlaguntza aktiboa.*
- b) Azken bi urteetan sentiberatze-ekintzaren bat Beasainen egin izana.*
- c) Azkeneko bi urteetan Beasaingo gazte laguntzaileak beka-programarako hartu izana.*

Proiektua:

- a) Proiektuaren deskribapena.*
- b) Eremu geografikoa*

- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 baino txikiagoa izatea edo herri indigenak ere egotea.
- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 eta 0,599 bitartekoa izatea.
- Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,6 eta 0,699 bitartekoa izatea.

*GGA: Hiru parametroz osaturiko gizarte-adierazlea: bizitza luze eta osasungarria, Hezkuntza eta Garapenerako Nazio Batuen Programak ezarritako bizitzeko baldintzen maila.

c) Hondamenezko gertaerak jasan dituzten herrialdeetan, kalteei aurre egiteko proiektuak izatea.

d) Giza eskubide, prestakuntza, sanitate eta ekoizpen arloetako proiektuak izatea.

e) Haur, emakume edo/eta ezgaitasuna duten pertsonentzako proiektuak izatea.

f) Lankidetzaren proiektuetako zikloetan generoaren ikuspegia sartzen duten proiektuak izatea.

g) Erakunde berak edo eta beste erakunden batek lagundutako proiektuak.

4- Hitzarmena egitea.

Udalak hitzarmenak sinatuko ditu diru-laguntzak jasoko dituzten erakundeekin beren legezko ordezkarien bitartez eta, hitzarmen horiek, atal hauek izango dituzte:

- Garatu behar den jardueraren edo programaren xedea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Jasotako diru-laguntza zurtzeko era eta epea.
- Garatutako programari buruzko txostenak eta memoria egin beharra.
- Kanpo-proiektzioa duten jardueretan edo programetan, Beasaingo Udalaren lankidetzaren agerian jarriko da, haren izena eta logotipoa barne direla.

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du edota euskaraz eta gaztelaniaz eta gutxienez ere honako atalak adierazi beharko ditu zehatz-mehatz: bideragarritasuna, iraunkortasuna eta aurreikusitako sarrera eta gastuen aurrekontua. Nolanahi ere, espresuki aipatu behar dira beste herri-erakunde nahiz erakunde pribatuen eskutik jasotako laguntzak zeintzuk eta zenbatekoak diren, erakunde hartzailearen informazio zehatza, ekintza gauzatzeko egutegia eta baloratuak izatea nahi diren bestelako arlo guztien ziurtagiriak.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

-Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

-Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

-Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

-Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

6.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 20 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berarekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren HEGOAK (Nazioarteko garapenari eta Lankidetzari buruzko azterlanen Institutoa) aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak, ondoren udal txosten teknikoa egingo da eta Alkatetzari aurkeztuko dio proposamena, honek gaia ebatz dezan.

8.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabetera.

Ebazpenarekin batera, diru-laguntza ematen den kasuetan, hitzarmena ere bidaliko da. Jakinarazpena jaso eta gehienera ere 20 eguneko epean, hitzarmena behar bezala bete eta sinatuta Udalari itzuli behar zaio.

9.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, hitzarmena sinatu eta ondorengo bi hilabeteetan ordainduko da.

10.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria. Froga-agiri horretan, garbi azaldu beharko du bidalitako dirua zehazki Beasaingoa dela.

2. Beasaingo Udalak helaraziko duen ereduan, burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua eta dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitorpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo, bestela, bereziki ze laguntza jaso diren adierazten duena.

11.- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, laguntza jasotako hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

b- Beasaingo gazte laguntzaileentzat beka.

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzaren ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartzen dute garapeneko lankidetzaren ekintzetan EAEko GGKE baten bidez gutxienez ere bi hilabeteko denboraldia eginez eta horrek bide ematen die egoera tokian ezagutzeko.

2.- Diru-laguntza ematen zaien gastuak.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu, herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteteko zergak barne eta baita hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu-gastuak eta mantenuarenak ere.

Gehienera 3.000 €-ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

3.- Eskatzaileak.

Programa honetan parte hartzeko, gazteek, eskaera egin aurretik gutxienez ere 18 urte beteak izan behar dituzte, gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen erroldatuta egon behar dute eta ezein GGKErekin ere lan-harremanik ez dute izan behar.

4. Hautaketarako irizpideak.

Hautagaiak aukeratzeko orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- a) *Jarduera burutu behar den herrialdeko hizkuntza ezagutzea.*
- b) *Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide-prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateak ikasten ari direla ziurtatzea.*
- c) *Lan-egitasmoa.*
- d) *Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea.*
- e) *Gobernuz Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea.*
- f) *Gazte-elkarte bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea.*
- g) *Euskararen ezagutza.*

5. Eskaerak. Agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- *Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.*
- *NAREN fotokopia.*
- *Curriculum Vitae-a: Laneko bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana), agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan).*
- *Tokiko erakunderen baten abala (ekintza burutu behar den herrialdekoa) delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena eta lan-egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.*
- *Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza:*

-Bidaiaren gastua: (hegazkina+bisatua+zergak)

-Aseguru-polizaren gastuak

-Beste gastu batzuk: osasun-, ostatu- eta mantenu-gastuak eta sentiberatze-jarduera antolatzeak (argazkiak...)

6. Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, apirilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean, Herri Administrazioen eta Administrazioko Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Udalak egiaztatuko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta haiekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Proposamenak egin eta ebatzi.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizateko batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruzko iritziekin eta Alkatzari aurkeztuko dio hark ebatz dezan.

Beharrezkoa ikusi ez gero, Batzordeak elkarrizketa bat egin diezaieke eskatzaileei aurkeztutako agiriez informazio gehiago biltzeko.

8.- Pertsona eskatzaileei jakinarazteko epea.

Alkatzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie diru-laguntza eskatu duten pertsona guztiei, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

9.- Diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharko diren baldintzak.

Ebazpenean bertan jakinaraziko zaie onuradunei diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituztela:

- a) Esleitutako jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.*
- b) Jarduera egin behar den Herrialdean, ekintza bukatu arte irautea.*
- c) Proposatutako denboraldirako istripu eta gaixotasunen aseguru-poliza bat kontratatzea.*
- d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak betetzea.*
- e) Eskarmentu-aldia bukatu ondoren, bertan egindako lanaren memoria, irudiz osatua aurkeztea eskatzen da, eta baita ere Beasainen antolatuko den sentiberatze-jarduera antolaztea urriko azken ostiralean beste gazte laguntzaileekin batera. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.*
- f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izana ziurtatzea edo bereziki zer laguntza jaso diren adieraztea.*

10.- Ordaintzeko modua.

Ordainketa gastuen fakturak edo agiriak aurkeztutakoan egingo da, beti ere, diru-laguntza onartu den urteko azaroaren 30a baino lehen.

Hegazkina, bisatua eta aseguru-polizaren gastuak, bidaia egin aurretik ordaindu ahal izango dira, baina beste gastu guztiak, aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ondoren ordainduko dira.

11.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

c- Ekintza gizatiarrentzako larrieldietarako laguntzak.

1- Xedea

Oinarri hauen xedea ekintza gizatiarretarako proiektuei laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrean daudenen dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundeak izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badute, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin badituzte.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, urriaren 30 baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira (8:30etik 13:30era bitartean, ekainetik iralera izan ezik, hil horietan harrera-ordutegia 8:00etatik 13:00etara izango baita) edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorren 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Eskaerak irizpide hauek kontuan izanda ebatziko dira:

- Larrialdiak edo hondamendiak eragindako kaltetuen kopurua
- Laguntza jasoko duten pertsona kopurua
- Premia-premiazko ekintzetarako (ura, janaria, jantzia eta etxebizitza)

5.- Proposamenak egin eta ebaztea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan.

6.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 6 hilabeteko epean.

7.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

8.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria.

2. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

9- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntza jasotako urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

10- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

d- Sentiberatze proiektuak eta aratze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetik datozen haurren denboraldirako harrera programak.

1.-Xedea.

Oinarri hauen xedea, Beasainen proiektuak eta jarduerak burutzeko laguntzak arautzea da. Proiektuak, munduan dauden desberdintasuneko harremanen aurrean elkartasuna eta espiritu kritikoa sustatzeko, nazioarteko elkartasun eta garapenerako lankidetzan prestatzeko, elkartasun edo garapenerako lankidetzat gaitzat duten argitalpenak bultzatzeko eta garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren harrera-programak bultzatzeko izan behar dute. Erakusketak antolatzeagatik ez da dirulaguntzarik emango.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo

erakundek izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badu eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legeko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze-egutegiarekin batera.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 20 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorren buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapidetik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berekin batera jasotzen diren agiriak ere, zuzenean artxibatu egingo dira.

5.- *Proposamenak egin eta ebaztea.*

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta proposamena egingo dio Alkatezari gaia ebatz dezan.

6.- *Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.*

Alkatezak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

7.- *Ordaintzeko modua.*

Diru-laguntzaren % 100a, beranduenera ere, ebazpena emandako datatik zenbatutako 2 hilabeteko epean ordainduko da.

8.- *Diru-laguntza zuritzea.*

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. *Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.*

2. *Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitorpena.*

3. *Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo bestela adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.*

9.- *Egiaztatze epea.*

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

10.- *Betebeharrak ez betetzea.*

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

2008ko azaroaren 25etik 2008ko abenduaren 15era arte Alkateak emandako ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera bederatzia eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.